

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Ahozko zein idatzizko elkarrekintzetan, informazioa eskatzerakoan zein ematerakoan, komunikazio asmoa kontuan hartuta, hartzaileari begirunezko adierazpide egokiz zuzendu eta ahozko komunikazioa bideratzeko teknikak zuzen erabili.	1.1. Egoera bakoitzerako begirunezko esapide edo <i>gizalege formula</i> egokia hautatzen eta erabiltzen du.
2. Informazio eskakizunaren helburuarekiko galdera pertinenteak formulatu eta besteek formulatutakoei koherentziaz eta zuzentasunez erantzun.	2.1. Emandako erantzunari dagokion galdera osatzen du , beharrezko inferentziak eginez.
	2.2. <i>Galderei erantzuteko</i> , galdegaiari erreparatuz, testuko informazioa identifikatzen du , eta beharrezko inferentziak egiten ditu.
	2.3. <i>Galderak zuzen formulatzeko garaian</i> , galdetzaile egokia erabiltzen du informazio eskakizuna kontuan hartuta.
3. Pertsona zein leku deskribapenen elementuak eta ordena inferitu.	3.1. <i>Pertsona zein leku deskribapenak egiteko</i> , elementuak identifikatzen ditu.
4. Pertsona deskribapenak sortu , aurretiko plan bati erantzunez eta definitutako kategoriei egokitzen zaien lexikoa baliatuz, eta idatzizko komunikazioa bideratzeko teknikak zuzen erabiliz.	4.1. <i>Pertsona deskribapena egin baino lehen, deskribatu beharreko</i> ezaugarriak kategorien arabera sailkatzen ditu.
	4.2. <i>Pertsona deskribapena egiteko emandako</i> ideiak garatzean osotasun semantikoz adierazten ditu: ulergarriak dira, esanahi betea dute.
	4.3. <i>Pertsona deskribapena egiteko</i> lexiko egokia erabiltzen du: adjektiboak, esamoldeak...
	4.4. <i>Egindako deskribapena atxikita egoki</i> bidaltzeko gai da elkartrukean egokitu zaion ikasleari posta elektronikoz.
5. Leku deskribapenak sortu , aurrez ezarritako deskribapen-plan bati erantzunez, plan horretako ordena adierazten duten adierazpideak erabiliz eta landutako deklinabide arauak aplikatuz, eta idatzizko komunikazioa bideratzeko teknikak zuzen erabili.	5.1. <i>Bokalez nahiz kontsonantez amaitutako</i> izenak lekuzko kasuetan (NON, NONDIK, NORA, NONGO) <i>singularrean eta pluralean</i> zuzen deklinatzen ditu.
	5.2. Leku deskribapenetan , elementuen kokapena adierazteko leku-antolatzaileak egoki erabiltzen ditu.
6. Oinarrizko deklinabide kasuak (NOR, NORI, NORK) bereizi eta idatzizko nahiz ahozko testuetan zuzen erabili.	6.1. <i>Ahozko nahiz idatzizko testuetan</i> egoki erabiltzen ditu oinarrizko deklinabide kasuak (NOR, NORI, NORK).
7. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	7.1 <i>Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak</i> gramatikalki zuzenak dira.
	7.2 <i>Idatzizko testuetan</i> ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.